

2021. URTERAKO ETXEKO SU-EGURRA

BALDINTZA OROKORRAK:

- Eskaera egiteko epea: URRIAREN 1etik 31ra (epe kanpoko eskaerak, 5 euro gehiago).

- Epe hori bukatu ondoren zuhaitzen markazioa egiten da eta horren ondotik, berriz, loteen zozketa.

- Zozketaren ondotik ez da eskaerarik onartuko.

- Egur lotea emanen da familia unitate bakoitzeko.

- Ezin da loterik eskatu udalarekin zorraren bat baldin bada.

- Debekatuta dago egurra herritik ateratzea, herriko bizilagunek aprobetxatzeko baita. Udalak horren berririk baldin badu, heldu den urtean ez dio su-egurrik emanen hori egin duenari.

2021. URTERAKO ETXEKO SU-EGURRA (OHIKO MODUAN)

- a. Prezioa: **10,00 €** (lote eskatzerakoan ordainduko da); horretaz gain, egurra prestatzeko lanen kostea ere ordainduko da (zuhaitzak bota, bidera atera, etab.).
- b. Aprobetxamenduko alderdia: udalak erabakiko du. Auzoetako kasuan, Mendiko batzordeak aukeratuko ditu alderdiak.
- c. Zuhaitz eroriei dagokienez, zozketan sartuko dira.
- d. Iazko lotea atera ez dutenei ez zaie jada emanen eta lote horiek aurtengo zozketan sartuko dira.
- e. Loteak ateratzeko epea: 2021eko martxoaren 31rako.
- f. Epe horietatik aitzinera ateratzea debekatuta dago, eta aprobetxamendua egiten ez dutenei ez zaie emango hurrengo urtean.
- g. Bide bazterretan utzitako loteak bi hilabeteko epean kendu beharko dira handik.
- h. Lotearen zozketa egin ondoren, eskatzailearen ardurapean geldituko dira gainerako lanak.
- i. Lotea eramanez ondotik, lekua garbia utzi beharko da.

2021. URTERAKO ETXEKO SU-EGURRA (ETXERA ERAMANDA)

- a. Lote bakoitza 5 Tm edo 10 Tm ingurukoa izanen da.
- b. Lotearen prezioa aitzineko urteetakoaren antzekoa izanen da.
- c. Fidantzak (eskaera egiterakoan ordainduko dira):
 - 5 tonako loteak: 50 €
 - 10 tonako loteak: 100 €
- d. Udala arduratuko da lotea atera eta eskatzaileak errandako lekura garraitzeaz, eta eskatzailearen ardurapean geldituko dira gainerako lanak.
- e. Izena ematen dutenek erran beharko dute non nahi duten uztea egur lotea; aipatutako lekuak sarrera egokia beharko du garraio-kamioiarentzat.
- f. Lanen kudeaketan eragozpenik ez izateko, eskatutako sistemak eta tonak ezingo dira aldatu (hasieran eskatutakoa izanen da banatuko dena).